

## **BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, CASARES-TOMASENE KULTUR ETXEAN IRRATI ZERBITZUA ETA IRRATI ETA KOMUNIKAZIOKO TAILERREN DINAMIZAZIOA ETA IKASTAROAK EMATEA KONTRATATZEKO EGINGO DEN LIZITAZIOA PROZEDURA IREKI BIDEZ ARAUTUKO DUENA**

### **1. XEDEA**

Lizitazio honen xedea da zerbitzu-prestazio hauetarako enpresa bat hautatzea: (a) Casares Irratiaren eta bere Irrati Tailerraren kudeaketa eta dinamizazioa; (b) laguntza teknikoa eta emankizun-zerrendak kudeatzea, haren jarraitutasuna bermatuta; (c) irradi-hedapeneko ikastaroen programak diseinatzea eta horiek Casares-Tomasene Kultur Etxean ematea Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoarentzat (aurrerantzean DONOSTIA KULTURA), orri honetan eta Baldintza Ekonomiko-Administratiboan Orrian aurreikusitakoaren arabera.

Horretarako, DONOSTIA KULTURAK enpresa kontratistaren esku jarriko ditu Casares Irratiaren instalazioak (Donostiako Casares-Tomasene Kultur Etxean daudenak), kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko.

DONOSTIA KULTURAK ahalmena du mintegiak, tailerrak eta bestelako ikastaroak antolatzeke, horien eduki eta ezaugarri bereziengatik (DONOSTIA KULTURAK bere aldetik zehaztutako espezialitatea) profesional edo artista jakin batek ematea egokituz jotzen dituenak. Ikastaro horiek, DONOSTIA KULTURAK bere aldetik erabakita, eta dagokion prozeduraren bidez, egilearekin edo esleipendun gertatuko den enpresa berarekin edo beste batekin kontrata daitezke.

Kontratuaren xedek jarduera bereizi hauek hartzen ditu barnean:

#### **a) Casares-Tomasene Kultur Etxeko irradiaren (aurrerantzean Casares Irratia) eta bere Irrati Tailerraren kudeaketa eta dinamizazioa.**

Kontratuaren xedek barnean hartzen du Casares Irratiaren eta bere Irrati Tailerraren kudeaketa eta dinamizazioa.

Casares Irratiaren eta bere Irrati Tailerraren kudeaketa eta dinamizazio horrek, halaber, barnean hartuko du DONOSTIA KULTURAREKIN batera funtzionamendu-proiektu bat diseinatzea eta abian jartzea. Proiektu hori enpresa lizitatuzaileek beren proposamen teknikoan proposatuko dute, Baldintza Ekonomiko-Administratiboan Orriaren **13. klausulan** ezarritakoaren arabera.

Kontratuaren esleipendun gertatuko den enpresak proposatutako funtzionamendu-proiektua DONOSTIA KULTURAREKIN batera garatu eta egokituko da, kontratua gauzatzean.

Horri dagokionez, adierazi behar da irradi-tailerra irradi-hedabidearen berri duten pertsonen zuzenduta dagoela, eta esatari gisa prestatzeko eta komunikatzeko gaitasuna hobetzeko interesa dutenei. Irrati-tailerrak aukera ematen du pertsona horiek beren irratsaioa egiteko eta emateko. Enpresa kontratista arduratuko da parte-hartzaileak irradi-tailer horretan koordinatzeaz.

Xede horretarako, DONOSTIA KULTURAREN ardura izango dira tailerraren eta dagokion kostuaren publizitatea egiteko kudeaketak; matrikulatutako pertsonen



matrikulazioarekin eta prezioa kobratzearekin lotutako kudeaketak, eta tailerren egiten diren matrikulazioekin lotutako bestelako tramiteak ere.

b) **Laguntza tekniko eta emankizun-zerrendak kudeatzea, haren jarraitutasuna bermatuta.**

Enpresa esleipenduna arduratuko da, halaber, Casares Irratiaren ekipamendu tekniko maneiatzeaz; haren instalazio eta ekipamenduen kontrol-lanak egiteaz; emankizun-zerrendak kudeatzeaz, eta emankizunaren jarraitutasuna bermatzeaz.

c) **Irrati-hedapeneko ikastaroen programak diseinatzea eta horiek ematea.**

Kontratuaren xedea da, gainera, irriaren, komunikazioaren, ahotsaren eta soinuaren esparruan prestakuntza-eskaintza bat diseinatzea eta abian jartzea, Casares-Tomasene Kultura Etxerako, eta esparru horretan ikastaroak ematea.

Ikastaroen programak diseinatzeko zerbitzuak barnean hartzen ditu bai ikasturte zehatzean eskainiko diren ikastaroen eta egutegiaren diseinu orokorra, bai ikastaro bakoitzari dagozkion programen diseinu zehatza.

Dena den, kontratua indarrean sartu eta lehen urtean, ez da egingo eskaini behar diren ikastaroen eta egutegiaren diseinu orokorraren zerbitzua, eta DONOSTIA KULTURAK egingo du diseinua. Lehen urte horretan, DONOSTIA KULTURAK zehaztutako ikastaroen programa zehatzak diseinatuko dira.

DONOSTIA KULTURAK, ikastaro bakoitzaren hasieraren aurretik, matrikulatutako pertsonen zerrenda emango dio enpresa lizitatzailari. Xede horretarako, DONOSTIA KULTURAREN ardura izango dira ikastaroen eta dagokien kostuaren publizitatea egiteko kudeaketak; matrikulatutako pertsonen matrikulazioarekin eta prezioa kobratzearekin lotutako kudeaketak, baita ikastaroetan pertsonak matrikulatzeko egiten diren tramiteak ere.

Aukera dago ikastaroak eta tailerrak DONOSTIA KULTURAREN mendeko sozietateen instalazioetan egiteko, alegia, Victoria Eugenia SAREN eta San Telmo Museoa SAREN instalazioetan.

Kontratuaren xedeak ez ditu barnean hartuko (i) Casares Irratiaren ekipamenduaren eta instalazioen konponketak, hirugarren profesional espezializatuen laguntza behar dutenak; (ii) material diskografiko, magnetiko, optiko edo bibliografikoa eta enpresa kontratistak kontratua gauzatzean erabilitako irriati-materiala eskuratzea; ezta (iii) ikastaroak ematean erabili behar diren materialak eskuratzea, eta (iv) sustapen-jarduerak egitean sortutako gastuak ere, orri honen **2. klausularen** a.2) letrari jarraikiz. DONOSTIA KULTURARI dagokio kontratatzea, enpresa kontratistak eskatuta edo berak erabakita, beharrezkotzat jotzen badu eta dagozkion prozedurak zainduta, zerbitzu eta hornidura horiek. Zerbitzu eta hornidura horien kostua zuzenean fakturatuko zaio DONOSTIA KULTURARI eta berak ordainduko du.

Zerbitzu horiek eskaintzeko baldintzak hurrengo **2. klausulan** jaso dira.

Enpresa lizitatzailerek hiru jarduera-atal horiek barnean hartzen dituzten eskaintzak aurkeztu beharko dituzte.

## 2. ZERBITZUAREN BALDINTZAK

Enpresa esleipendunak egin behar dituen lanak, kasu guztietan DONOSTIA KULTURAK jarduera bakoitzerako ezarritako jarraibideak betez, hauek dira:

### a) Casares Irratiaren eta bere Irrati Tailerraren kudeaketa eta dinamizazioa.

#### a.1) Kudeaketa eta dinamizazioa.

Enpresa kontratistak funtzio hauei heldu beharko die:

- Premien arabera, irrati-tailerra eta instalazio egokien erabilera antolatzea. Ordu-tegi-proposamenak DONOSTIA KULTURAREN oniritzia izan beharko du eta astean gutxienez lagundutako erabilerako 20 ordu bermatuko ditu.
- Zerbitzuari buruzko informazioa eskaintzea.
- Irratia dinamizatzeko plan bat diseinatzea eta abian jartzea, egutegia barnean hartuta, helburu hauekin:
  - Egungo kultura-esparruko mugimendu, artista eta eragileen berri zehatza ematea, eta errealitate hori irratiaren web-orrian islatzea.
  - Interneten bidez sortutako kultura-material guztia artxibatzea, kudeatzea eta hedatzea.
  - Tailerraren pertsona erabiltzaileen barne-dinamizazioa egitea. Eztabaidarako topaketak eta foroak antolatuko dira barne-informazioko fluxuak eta tailerraren izaera finkatzeko.

#### a. 2) Programazioa.

Enpresa kontratistak, DONOSTIA KULTURAREN gidalerroak betez, funtzio hauei heldu beharko die:

- Casares Irratiarentzat programazio-proposamenak egitea, printzipio hauek aplikatuta:
  - Sortzaileentzat erakusleho izatea.
  - Elkarte eta ekimenen bozgorailu izatea, kultura- eta gizarte-arloko gaien inguruan.
  - Irratiz eduki sortzaileak ematea.
- Programazioak bi zutabe izango ditu:

*Ekoizpen propioa:*

- Kulturaren esparruan erakusleho eta bozgorailuaren zeregina izatea, eta bereziki Donostia mailan.
- Tailer-funtzioa: irratiaren eta irrati-sorkuntzaren munduan hasteko.



- Lan sortzaile berriak ezagutarazteko funtzioa.
- Eduki guztiak erabiltzaile, artista eta elkarteen esku jartzea, heda ditzaten.

## Trukeak:

- Beste irrati eta kultura-eragile batzuekin, lizentzia askearekin.

Bi zutabeetatik, ekoizpen propioak lehenetsuna izango du programazioan. Casares Irratiak, gutxienez, ekoizpen propioko 15 irrati-ordu egingo ditu astean.

- Kultura-ikuspegi batetik, artxibo-funtzio bat betetzea: kultura-esparruan gertatutako guztia jasoko den neurrian, Interneten oso eskuragarri uztea, sortzaileen, elkarteen eta oro har kultura-esparruaren lana sustatzeko. Halaber, kultura-memoria edo kultura-ondarea zaintzea; ahal dela, zenbait elkarte eta eragilarekin lankidetzan.
- Tailerren erabiltzaileek aurkeztutako irrati-programen proposamenak aztertzea eta baloratzea, DONOSTIA KULTURAK, hala badagokio, gero onar ditzan.
- Baldin badaude, proiektu-proposamen bakoitzak dagozkion ekoizpen-gastuak definitu beharko ditu.
- Garatzen diren proiektuak gainbegiratzea.
- Proiektu-proposamena Kultur Etxeak aurrez definitutako guztizko aurrekontura egokitu beharko da.
- Etengabeko emanaldia egitea 24 orduan zehar FMn zein Interneten.
- Irrati Tailerrean praktikak egiten dituzten pertsona bekadunak prestatzea eta koordinatzea, DONOSTIA KULTURAREN eta prestakuntza-zentroen artean sinatutako lankidetzak-akordioen ondorioz.
- DONOSTIA KULTURAREKIN adostutako programazioa ematea.
- Programazioaren hedapena antolatzea eta koordinatzea.
- Programetan gonbidatu eta parte-hartzaile gisa dauden pertsonekin harremanetan jartzea eta zuzenean harrera egitea.
- Emanaldietan, euskararen erabilera arreta bereziz zaintzea.
- Bere gain hartuko du proiektua hedatzeko erantzukizuna:
  - DONOSTIA KULTURAREN titulartasuneko web-orria, Casares Irratiaren jarduerari eskainitakoa eta gaur egun dagozkion domeinuaren bidez eskuragarri dagoena mantentzeaz eta aldatzeaz arduratuko da, haren itxura erakargarria eta nabigatzeko erraztasuna ziurtatuta, emanaldiei zein hedapenari buruzko alderdiak barnean hartuta. Jarduera horrek barnean hartuko ditu helburu horiek lortzeko egungo web-orrian oinarrituta egin behar diren programazio- eta garapen-lanak.

- Sare sozialak erabiliko dira eguneroko jarduera hedatzeko.
- Sustapen-jarduerak egingo ditu (aurrez aurreko jarduerak eta programa/emanaldi bereziak), bere proposamen teknikoan jasotako sustapen-jardueren planean oinarrituta, eta kontratua gauzatzean proposatuko dituen bestelako sustapen-jarduerak.

Kontratatik ildo horretan gauzatzen dituen sustapen-jarduerak DONOSTIA KULTURAREN berriazko oniritzia izan beharko dute, eta Kultur Etxeak definitutako guztizko aurrekontura egokitu beharko dira.

Eskaintako urteko prezioaren barruan ez daude kontratatik sustapen-jarduera horiek gauzatzean sortuko dituen gastuak. Gastu horiek zuzenean fakturatuko zaizkio DONOSTIA KULTURARI eta berak ordainduko ditu, Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Orriaren **7.1 klausulan** aurreikusitakoaren arabera.

- Eragileekin bilduko da proiektuaren berri emateko.

Une oro, esparru honetan indarrean den legeria errespetatzea.

## b) **Laguntza teknikoa eta emankizun-zerrendak kudeatzea, haren jarraitutasuna bermatuta.**

Enpresa kontratatik funtzio hauei heldu beharko die:

- Programazio-irizpideen arabera, programak automatizatzea eta horien jarraitutasuna ziurtatzea.
- Irrati-tailerraren ekipamendua zaintzea. DONOSTIA KULTURAK profesional espezializatuak egin behar dituzten konponketak ordainduko ditu, Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Orriaren **7.1 klausulan** aurreikusitakoaren arabera.
- Tailerrean sortzen den irradi-materiala artxibatzea eta kontserbatzea.
- Kontratua gauzatzean, irradiaren funtzionamendurako behar den material informatikoa (hardwarea eta softwarea) atxikitzea, ikastaroak izan ezik. Halaber, enpresa esleipendunak material hori legezkoa eta egokia dela bermatu beharko du.

DONOSTIA KULTURA arduratuko da material diskografikoa, magnetikoa, optikoa edo bibliografikoa eskuratzeaz, baita irradi-materiala lortzeaz ere, beharrezkoa denean.

## c) **Irrati-hedapeneko ikastaroen programak diseinatzea eta horiek ematea.**

DONOSTIA KULTURAK erabakiko du ikastaro bakoitza egiteko gutxienez zer ikasle kopuru behar den.

DONOSTIA KULTURAK erabakiko ditu ikastaroak hasteko eta amaitzeko datak eta dagozkien oporrak.

Irrati-ikastaroen matrikulazio-prozesuan (aurreinskripzioetan) beharrezkoa bada ikasleek aldeztatik dituzten ezaguerak ebaluatzea, enpresa esleipendunak horretan lagunduko du eta, oro har, matrikulazio-prozesu osoan.



Kontratatistak 2017ko apirilaren 30a baino lehen 2017-2018 ikasturtean deitu behar diren ikastaroen programa-proposamen orokor bat aurkeztu beharko du.

Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Orriaren **6. klausulan** adierazitakoaren arabera kontratua luzatzen bada, DONOSTIA KULTURAK, ikastaroen proposamen orokor hori aztertu eta horretan egoki deritzon aldaketak egindakoan, onartu egingo du, eta kasu horretan, enpresa esleipendunak, onarpen horretatik hilabeteko epean, baimendutako proposamenean jasotako ikastaroen programa zehatzak aurkeztuko ditu. Horiek ere DONOSTIA KULTURAREN berariazko baimena beharko dute, aurrez egoki deritzon aldaketak eginda.

Aurreko guztia ez da aplikatzekoa izango kontratuaren indarraldiaren lehen urtean, aurreko klausularen hirugarren paragrafoko c) letran aurreikusitakoaren arabera, programen diseinua DONOSTIA KULTURAK egingo baitu.

Era berean, ikastaroen programa zehatzen proposamenean, horiek ematean erabili behar diren materialen proposamena jasoko da. DONOSTIA KULTURARI dagokio kontratatzea, enpresa kontratatistak eskatuta edo berak erabakita, beharrezkotzat jotzen badu eta dagozkion prozedurak zainduta, material-hornidura horiek. Hornidura horien kostua zuzenean fakturatuko zaio DONOSTIA KULTURARI eta berak ordainduko du.

DONOSTIA KULTURAK enpresa esleipendunaren esku jarriko du irрати eta komunikazioko ikastaro horiek emateko behar den material informatikoa (hardwarea eta softwarea).

## **Zerbitzuaren bestelako baldintzak**

Ikastaro bakoitzeko gehieneko ikasle kopurua DONOSTIA KULTURAK eta enpresa esleipendunak definituko dute.

Urtean zehar, enpresa esleipendunak zerbitzuaren balorazioak eta ebaluazioak egingo ditu eta Donostia Kulturaren aurrean aurkeztuko ditu.

Lehenengoa, urtekoa, urtarrilaren 15aren aurretik egingo da eta proiektuen emaitza ebaluatuko du (ikasleen onarpen-maila eta gogobetetze-maila, programa bakoitzaren garapena eta enpresa esleipendunak edo esleipendunek egoki deritzoten edo Donostia Kulturak eskatzen dien edozein alderdi).

Bigarrena ikasturte-amaieran egingo da, eta ikastaro eta tailer bakoitzaren eta, oro har, diseinuaren ebaluazio zorrotz bat egingo du.

## **3. ORRI HONEN 1. KLAUSULAREN C) ATALEAN JASOTAKO ZERBITZUAK (HOTS, IRRATI ETA KOMUNIKAZIOKO IKASTAROEN PROGRAMAK DISEINATZEA ETA HORIEK EMATEA) ESKAINIKO DITUZTEN LANGILEEI BURUZ.**

**Orri honen 1. klausularen c) atalean jasotako zerbitzuak (hots, irрати eta komunikazioko ikastaroen programak diseinatzea eta horiek ematea) eskainiko dituzten langileei buruz:** 2017-2018 ikasturtean deitu behar diren ikastaroen programa-proposamen orokorrean, hots, kontratatistak 2017ko apirilaren 30aren aurretik aurkeztu beharko duen proposamenean, ikastaro bakoitza emateko atxikiko den lan-ekipamenduaren deskribapen bat egingo da, DONOSTIA KULTURAK Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Orriaren **6. klausulan** adierazitako urteko

luzapena egitea erabakitzen badu. Atxikipen hori ere DONOSTIA KULTURAK baimenduko du, dagozkion aldaketak, hala badagokio, aurrez eginda.

Horretarako adieraziko dira *curriculum vitae*-a, titulazioak, hizkuntzen ezaguera, lantaldeko kideek kontratuaren xede diren prestazioak euskaraz zein gaztelaniaz gauzatzeko duten gaitasuna bereziki aipatuta; prestakuntza eta kontratuaren xedea osatzen duten antzeko ezaugarrietako bestelako ezaguera espezifikokoak eta eskainitako zerbitzuak. Era berean, enpresako pertsona arduraduna edo ordezkaria aipatuko da berariaz.

DONOSTIA KULTURAK eskubidea du egoki deritzon egiaztapen-lanak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarri guztia eskatzeko, erakunde kontratista ikastaro bakoitza emateko atxikitako erakunde eta/edo pertsonekin lotzen duten kontratazioen legezkotasunaren betetze-maila egiaztatzeko.


Proposamenean irakasleen euskara-maila egiaztatzeko dokumentazioa sartu beharko da, bai hizkuntza horretan emango diren ikastaroetarako, bai ezaguera hori beharrezkoa ez denetarako. Ikastaroa euskaraz ematen denean, EGA mailako ezaguera egiaztatu beharko da, edo baliokidea edo handiagoa.

Euskararen ezaguera-maila ezin ziurtatu bada, DONOSTIA KULTURAK maila ziurtatzeko beste proba batzuk egitea erabaki dezake. Irakasleak proba horietan maila hori egiaztatzen ez badu, esleipendunak ikastaroa emateko beste pertsona bat aurkeztu beharko du, aurrekoa ordezkatzeko.

Gaztelania eta euskara ez den beste hizkuntza batean (ingeles, keinu-hizkuntza...), halaber, B2 ezaguera-maila ziurtatu beharko da, edo baliokidea edo handiagoa. Era berean, B2 maila hori, edo baliokidea edo handiagoa ezin ziurtatu bada, DONOSTIA KULTURAK maila hori ziurtatzeko beste proba batzuk egitea erabaki dezake. Irakasleak proba horietan maila hori egiaztatzen ez badu, esleipendunak ikastaroa emateko beste pertsona bat aurkeztu beharko du, aurrekoa ordezkatzeko.

Esleipendunak dokumentu batean islatuko du ikastaroak emango dituzten pertsonen jarduera-protokoloa, bai enpresa esleipendunari, bai Casares-Tomasene Kultur Etxeari dagokionez. DONOSTIA KULTURAK onartu behar du dokumentu hori. Gainera, bajak, oporrak, eta abar ordezkatzeko langileen jarraitutasun-plan bat aurkeztuko da.

Donostian, 2016ko ekainaren 14an.

  
EEP - EPE

Jaime Otamendi Muñagorri  
Zuzendar Kudeatzailea